

herrerar-bidebieta

Bittor Alkizak Herrerara ekarritako irabaziak

herrerako Sporting Futbol Elkarteak urte askotxo daramatza gure auzoan futbolaren inguruan lanean.

Aurtengoa izango da dena den, elkarte honentzat urte oparotsuenetako bat. Alde batetik, Bittor Alkiza Errealeko jokalaria ohiaren fitxaketak irabazi ekonomiko garrantzitsuak ekarri dizkio, eta bestetik, futbol zelaiaren konponentak aspaldiko eskaerak ixilaraziko ditu.

Lokal berria

Bittor Alkiza Sporting Futbol Elkarteko jokalaria izan zelako jaso dituzte herreratar hauek bere fitxaketaren fruituak. Athletiken fitxaketa horretatik 22 milioi jasoko ditu Sporting taldeak.

Dirua, besteak beste, administrazioa eta ofizina orain dutena baino toki egokiagoan kokatzeko lokal bat erosteko erabili-



Argazkia: Ximon

Oraindik gauzak zertan geratuko diren argi ez dauden arren, Atotxako futbol zelaia botatzen badute, posible litzateke hainbat talde zelai honetan entrenatzen hasia. Horrek berrikuntzak ekarriko litzuke.

ko da. Dena den, dirua ez dute kolpez jasoko. Orain kontratuaren %10a ordainduko zaie eta 1997. urtera arte ordainketa bakoitzeko 5 milioi jasoko dituzte.

Profesionalak

Bittor Alkiza ez da Sportingek profesional mailan daukan jokalaria bakarra. Profesional mailan dabilzan edo ibili diren beste hiru jokalaria baditu: Eliseo, Barral eta Ramon. Miguel Angel Diez, Sporting Futbol

Elkarteko presidentek adierazi digunez, jokalaria guztiak profesional izatera iristen ez badira ere, eguneroko lana zuzen eta grina handiz betetzen dute.

Zortzi talde lanean

Sportingek 8 ekipo dauka momentu honetan entrenatzen Herrerako futbol zelaian eta esan behar da bertan jokatzeko duten jokalariek ondo eza gutzen dutela zer den Sportin Futbol Elkartearen eta bertan exijitzen den

guztia. Hala eta guztiz ere azpimarra daiteke elkarte herreratar honek ez diola inori aterik ixten eta futbola gustoko duten gazteei bertara hurbiltzeko deia zabaltzen diete.

Herreratarrentzat Sporting Futbol Elkarte oso garrantzitsua da eta berea bezala sentitzen dute, dena den herreratarrei Sportingek partehartze zuzenagoa eskatzen die.

Gogoratu gaur ostirala, urriak 28, arratsaldeko 8etan Herrerako San Luis Elizan «The Choir Club of Takaoka Girl's High School» abesbatza entzuteko aukera izango dugula.

Takaokatik etorritako 40 emakume hauek Euskal Giroa Elkartean beste abesbatzetako abeslariekin eta antolatzaileekin afalduko dute.

LARRAIZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

1994-95 Ikastaro Egitaraua Zubeldia Ikastegiak
 Zumardi Ibiltokia, 14 (Bidebieta - 1)
 20016 DONOSTIA

Euskadi Etorbidea, 5 - Pral. C
 20110 PASAIA - TRINTXERPE

IKASTAROAK

- 1- Hizkuntzak: euskara, ingelesa, frantsesa
- 2- Informatika
- 3- Mekanografia ordenagailuz
- 4- Kontabilitate eta merkatal gestio mekanizatua
- 5- Hardware-an teknika
- 6- Marketing eta salmentak
- 7- Laboral eta zerga gestioa Pyme-etan
- 8- Laguntza klaseak: OHO, ertaina, eta unibertsitatea
- 9- 25 urte baino gehiagokoentzat unibertsitaterako sarrera
- 10- Klinika laguntzailea, geriatría laguntzailea
- 11- Elikagai manipulatuak
- 12- Dietetika eta nutrizioa

Telefonoa: 399877

Zumardi pasealekua, 22-24 • Tfnoa.: 393775

intxaurrondo

Xole eta Mirari Etxegia aspalditik palaz jokatzen duten ahizpak dira. Jaiotzez goizueta-rrak izan arren, azken urteotan Intxaurrondoko Pilota Elkartean aritu dira jokatzen.

NOLAZ HASI ZINETEN PALAZ JOKATZEN ETA BEREZIKI ZUEN HERRITIK URRUN ZEGOEN TALDE BATEAN?

Xole: Ni herrian hasi nintzen. Txiki-txikitatik eskuz ibiltzen ginen, baina neskak ginenez, gero palaz hasi ginen. Lesakan antolatzen zuten txapelketa bat zela eta, ahizpari pixka bat erakutsi eta elkarrekin jokatu genuen. Txapelketa mailan, duela bost urte hasi ginen, ordu-ra arte ez baitzegoen txapelketarik. Herri mailan, ikasteko batipat, pilota eskoletara aurkeztu ginen, baina neskak izanik, ez gintuzten onartu. Orduan, egunkarian deialdi bat azaldu zen, neska talde bat osatu nahi zela adieraziz. Elkartu ginen, IPEk txapelketa antolatu zuen eta aukera eman ziguten IPEn sartzeko.

EUSKAL HERRIAN ZEIN AUKERA DAUDE ZUEN KIROLEAN?

Batez ere Nafarroan oso gutxi. Donostia aldean aukera gehiago dago. Jokatu luketenak badaude, baina ez dute txapelketarik jokatzeke aukerarik.

Xole eta Mirari Etxegia: «Emakumea diskriminatua dago kirolean»



Xole eta Mirari Intxaurrondoko frontoian partidu bat jokatu ondoren.

NOLA IKUSTEN DUZUE EMAKUMEAREN PAPERA KIROLE-TAN?

Oso diskriminatua. Mundialeko partiduetan adibidez, nesken partidurik ez zen agertu telebistan eta zenbait neska bazeuden. Beste kiroleetan ere berdin gertatzen da; gehienez emaitzak agertzen dira. Oso mugatua dago. Kirol guztietan irribarrez begiratzen gaituzte, tenis, saskibaloia eta eskubaloian izan ezik. Jendea kuriositatez joaten da ikustera: «*ea zer egiten duten*». Gainera, askotan seriotasun gutxiarekin hartzen dira txapelketak, epaileak ere ez baitira agertzen.

KIROLAK EMATEN AL DU BIZITZEKO?

Emakumeen kasuan ez. Lana edo kirola aukeratu beharra dago. Kontentu gaude jokatzearekin

bakarrak. Berdin zaigu dirua ematea edo ez, baina interes minimo bat beharrezkoa ikusten dugu. Adibidez, mundialeko arropa jokalariek jarri behar izan zuten. Hori lotsagarria da.

DONOSTIA MAILAN JOKALARI ASKO AL DAGO?

Donostia bertakoak 4 edo 6 izango dira, baina beste hainbat herritakoak ibiltzen gara: Hernani, Aia, Goizueta, Aizarna... Gipuzkoa osoan 22 inguru gaude.

PALAZ JOKATZEKO ZER BEHAR DA?

Eskuz pilotan ibiltzen denak posizio gehiago dauka gero frontoian ibiltzeko. Eskutik palara ez dago desberdintasunik; eskuarekin jo beharrean tresnarekin jotzen duzu. Bestela, beste kiroleko entrenamendu bera egiten da: lasterketa egin, fondoa hartu, gimnasia... eta palari eman eta eman.

NOIZ ARTE JARRAITU BEHAR DUZUE JOKATZEN?

Oraingoz gorputzak aguantatu arte, gustora gabiltza. Baina beharrezkoa da jende berria sartzea. Horregatik, deialdi bat egin nahi diegu palaz jokatu nahi duten guztiei: larunbatetan Hernaniko polikiroldegian goizeko 11etatik 12.30etara ager daitezela.

ANEKDOTAREN BAT KONTATUKO AL ZENUKETE?

Txapelketa bat hastear zegoela, telebistako kama-rra bat 3. zembakian jarri zen. Guk esan genion atzerago joateko eta harrituta begiratu gintuen atzeraino ez ginela iritsiko uste baitzuen. Partidua hasi eta zapla, atzera gindoazela ikustean, berehala atzean kokatu zen. Ignorantzia hutsa da, pentsatzen zuen teniseko pilota batekin ibiliko ginela aurrean.